



ekoetxea
Azpeitia

**EKOETXEA AZPEITIA
2017-2018 IKASTURTEKO
MEMORIA**

AURKIBIDEA

1- Historia eta ibilbidea.....	4
2- Ekipamendua eta instalazioak.....	4
2.1- Ekoetxeako programak.....	4
2.2- Beste programa osagarriak.....	4
3- Eskaintza eta metodo pedagogikoa.....	4
3.1- Ekintzak.....	4
3.2.- Aste Santuko Programazioa.....	5
3.3.- Pazko Asteko Programazioa.....	5
3.4.- Udako Programa.....	5
4- Eskolako Agenda 21.....	6
4.1.- Eskolako Agenda 21 2017-2018.....	6
4.1.1.- Eskaintza.....	7
4.1.2.- Sortutako Material Didaktikoa.....	8
4.1.3.- Ekintza osagarriak.....	10
4.1.4.- Komunikazio materiala.....	11
4.1.5.- Parte hartzea.....	12
4.1.6.- Eskola Agenda 21eko Koordinazio Bilerak.....	13
4.1.7.- Ikasleen ekarpenak herriko proiektuetan.....	13
4.2.- Eskolako Agenda 21 2018-2019.....	14
4.2.1.- Eskaintza.....	14
5- Komunikazioa	16
5.1.- Bisitak Ekoetxea Azpeitiako web orrira.....	16
5.2.- Komunikabideekin harremanak.....	16
5.2.1.- Sare Sozialetan presentzia.....	16
5.3.- Publiko desberdinei zuzendutako mailng-a.....	16
5.3.1.- Ikastetxeak.....	16
5.3.2.- Besteak.....	17
6- Harremanak eta Saretzea.....	17
6.1.- Eskualdeko eta Azpeitiko eragile eta taldeekin harremanak.....	17
6.2.- Ekoetxea Sarean parte hartzea.....	18
7- Kudeaketa eta antolakuntza.....	19
7.1.- Koordinazio Bilerak Eusko Jaurlaritzarekin.....	19

7.2- Koordinazio bilerak Azpeitiko Udal ordezkariekin.....	19
8- Bisitariak	19
8.1- Aurrez hitzartutako bisitak.....	20
8.1.1- Hilabeteka.....	20
8.1.2- Probintziaka.....	20
8.1.3- Zikloka.....	20
8.1.4- Programaka.....	21
8.1.5- Hizkuntza ereduaren arabera.....	22
8.1.6- Adinaren eta sexuaren arabera.....	22
8.2- Nork bere konturako ikustaldiak.....	23
8.2.1- Probintziaka.....	23
8.2.2- Asteko egunaren arabera.....	23
8.2.3- Adina eta sexuaren arabera.....	24

1- HISTORIA ETA IBILBIDEA

Ekoetxea Azpeitia ekipamendu aitzindaria da ingurumen hezkuntzan, izan ere bera izan zen Euskal Herriko ingurumen hezkuntzarako lehen ekipamendua. Orain arteko 30 urteko ibilbidean zehar fase desberdinak izan ditu: 1987tik-1998ra etapan Umeentzako museoa izan zen, 1998an Ingurugiro Etxea izenpean ibilbide berri bati ekin zion. 2017a geroztik, berriz, Ekoetxea Azpeitia deitzera pasatu zen.

Ekoetxea Azpeitia Loiolako Egibar baserrian kokatzen da. Klima aldaketa eta Ondare Naturalari buruzko 4 erakusketa gela ditu eta bere kanpoaldean Xaguxatar parkea dauka.

Baliabide horiek guztiak hezkuntza komunitateari Jasangarritasun gaietan eskaintza zabala luzatzea ahalbidetzen dute. Zentruak Haur Hezkuntzatik DBH 4ra arteko programak eskaintzen ditu.

Horrez gain, Ekoetxea Azpeitia gai horietan interesatuta dauden taldeek zein norbanakoek bisitatu dezakete.

2- EKIPAMENDUA ETA INSTALAZIOAK

2.1. Ekoetxeako programak

Ekoetxea Azpeitiako programak HH-DBH bitarteko hezkuntza-etapetara zuzenduta daude.

2.2. Ekoetxeako beste programa osagarriak

Ekipamenduan bertan garatzen diren programez gain, Ekoetxea Azpeitiak baditu beste ekipamendu osagarrietan lantzen diren programak, hala nola, Lapatx zabortegian, Kontsumo gelan, Konpostaje plantan, Igarako errotan eta uraren zikloko ekipamenduetan. Esan beharra dago Lapatx zabortegiaren ixtearen ondorengo egokitze lanak direla eta, 2017ko ekainaren erdialdetik aurrera ezin izan ditugula bertara bisitaldirik bideratu, baina 2019ko urtarrilatik aurrera berriro bisitak jasotzea aurreikusita dago.

2.3- Ekoetxea Azpeitiako Definizio Museologiko Berria

Ekoetxea Azpeitiarako Definizio Museologiko berria dela eta, 2017ko abenduan Ideaholiks enpresako Alex Kortabitartek Ekoetxea Azpeitiarako prestatutako aurreproiektua aurkeztu zuen. Aurreproiektuari, Azpeitiko Udaletik, Ekoetxeatik eta Eusko Jaurlaritzatik egindako ekarpenen ondoren, 2018ko ekainean proiektua aurkeztu zuen. Proiektuaren inguruan ere hainbat aldaketa eta egokitzapen proposatu ditugu. Hori dela eta, bere bideragarritasuna berraztertu beharko dugu eragile guztion artean.

3- ESKAINTZA ETA METODO PEDAGOGIKOA

3.1.- Ekintzak

Ekoetxea Azpeitiak bere eskaintza publiko berrietara zabaltzea du helburu. Erronka honi erantzuteko hilero familiei zuzendutako asteburuko ekintza berri bat proposatzea markatu genuen helburu gisa. Esan beharra dago, ordea, abenduan ekin geniola egitasmo honi. Ondorengo koadroan, 2017ko abendutik 2018ko abuztura bitartean burututako tailerren eta hauetan izandako partaidetzaren berri ematen da:

TAILERRA	PARTAIDE KOPURUA
Abenduak 17: Gabonetako eskulan tailerra	50 4-10 urte bitarteko ume+ 23 heldu
Urtarrilak 27: Egun ona hasteko! Go!saldu (heziketa nutrizional egokirako jarraibideak)	33 nerabe+3 heldu
Otsailak 4: Zuhaitz Eguna: zuhaitz landaketa familiarentzat Esklabetako eremuan	78 ume eta heldu
Martxoak 18: Uraren tailerra: uraren inguruko jolasak	13 ume eta heldu
Apirilak 15: Txoribox proiektua: txorientzat habi-kutxak eraiki eta Ekoetxeako inguruko zuhaitzetan kokatzea	70 ume eta heldu
Maiatzak 13: Eskulan tailerra material birziklatuekin	59 ume eta heldu
Ekainak 10: Hazien tailerra	20 ume eta heldu
Uztailak 15: Kokedama tailerra	31 ume eta heldu
Abuztuak 26: Artoa lantzen tailerra	43 ume eta heldu

3.2- Aste Santuko Programazioa (martxoak 29tik-apirilaren 2ra):

Ekoetxea Azpeitiako Aste Santuko Programazioaren barne Igarako errota ikusgai egon zen goizez eta arratsaldez. Egun horietan 324 bisitari izan ziren Igarako errota eta 108 Ekoetxean.

Bestalde, haur eta nerabeak bere aisialdian erakartzeko xedearekin ondorengo jarduerak planifikatu dira:

3.3- Pazko Asteko Programazioa (apirilaren 3tik 6ra):

Pazko Astearen harira Ekoetxea ekipamenduko eta Xaguxatar parkeko jarduerak egiteko gonbidapena luzatu genien Urola Erdia, Urola Kosta eta Urola Garaiako ludoteka zein aisialdi taldeei.

Esan beharra dago ekimenean ez genuela partaiderik izan. Arrazoietako bat izan daiteke eskaintza berandu egin genuela.

3.4.-Udako programa (uztailaren 2tik 20ra)

Programa 3-12 urte bitarteko umeei zuzenduta egon da eta bertan ingurumenari lotutako jolas, jarduera eta bisita osagarriak eskaini dira. Ondorengo koadroan programen eskaintza azaltzen da adin tarte desberdinen arabera sailkatuta.

HH (3-5 URTE)	LH1-LH2-LH3-LH4 (6-10 URTE)	LH5-LH6 (11-12 URTE)
- XAGUXATAR PARKEA	- XAGUXATAR PARKEA	- XAGUXATAR PARKEA
- HONDAKINAK	- HONDAKINAK	- HONDAKINAK
- BIZI GAREN LURRA	- ENERGIA	- GUZTION ARDURA
- ZARATA	- TANTAZ TANTA	- LOIOLAKO PARKEKO ZUHAITZAK EZAGUTZEN.
- IGARAKO ERROTA	- IGARAKO ERROTA	- IGARAKO ERROTA

Udarako Programa egitasmoan parte hartu duten taldeak ondorengoak izan dira:

EKAINAK 26	IRAURGI UDALEKUAK LH-1,2, 3 (17)
EKAINAK 28	ELGOIBARKO UDALEKUAK 8-9 URTE (46)
EKAINAK 29	UDAN TXIKI- AZPEITIA HH3 (23)
UZTAILAK 3	IRAURGI UDALEKUAK HH 3,4,5 URTE (39)
UZTAILAK 9	IKASBERRI UDALEKUAK HH 3-4 URTE (26)
UZTAILAK 10	IKASBERRI UDALEKUAK HH 5 URTE (20)
UZTAILAK 11	IKASBERRI UDALEKUAK LH-2 (24)
UZTAILAK 12	UDAN KOXKOR AZPEITIA HH 4-5 URTE (53)
UZTAILAK 17	KEIMA JOSTATU ETA IKASI- SANTURTZI 6-8 URTE (80)
UZTAILAK 20	ELGETAKO UDALEKUAK HH3 URTETIK LH 12 URTERA (69)

4- ESKOLAKO AGENDA 21

4.1.- Eskolako Agenda 21 2017-2018

2017-2018 ikasturtean, eta iazko gaiari (*Klima aldaketa*) jarraipena emanez, **Klima aldaketa eta osasuna** gaia landu da. Guztira, herriko **2.572** ikaslek hartu dute parte egitasmo honetan: Azpeitiko ikastola Ikasberriko Haur Hezkuntzak, Lehen Hezkuntzak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak eta Batxilergoak, Karmelo Etxegarai ikastolako Haur Hezkuntzak eta Lehen Hezkuntzak, Urola ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak eta Batxilergoak, Iraurgi ikastetxeko Haur Hezkuntzak, Lehen Hezkuntzak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak eta Batxilergoak. Ondorengo koadroan ikastetxe bakoitzean proiektuan parte hartzen duten etapak eta beraiei dagozkien ikasle kopurua azaltzen da:

IKASTETXEAK	IKASLEAK				
	HH	LH	DBH	BATX	GUZTIRA
IZENA					
KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA	320	512			832
UROLA IKASTOLA			443	150	593
IRAURGI IKASTETXEA		317	227	84	628
IKASBERRI AZPEITIKO IKASTOLA	141	235	143		519
GUZTIRA	461	1.064	813	234	2.572

4.1.1.- Eskaintza

Ondorengo koadroan **Klima aldaketa eta osasuna** gaiaren inguruan ikasleek herriko diagnostikoa egin ahal izateko Ekoetxea Azpeitiak prestatutako jardueren eskaintza azaltzen da:

	ONARRIZKOAK	OSAGARRIAK
L H 1 - 2	<ul style="list-style-type: none"> MUGIKORTASUNA. Ikasleak nola joaten dira eskolara? Urte desberdinetako datuak konparatu eta horren eboluzioa aztertu. Aurretik, Lurra gaixotzearen arrazoiak eta ondorioak labur azaldu ikasleei eta hartu zituzten konpromisoak gogorarazi. Zer egin beharko luke udalak arazo hau konpontzeko? 	<ul style="list-style-type: none"> Burdinbidearen Euskal Museoa
L H 3 - 4	<ul style="list-style-type: none"> ENERGIA. Gure etxeak prestatuta al daude olatu handiei aurre egiteko (bero olatuei nahiz hotz olatuei) Zer egin beharko genuke hauei aurre egiteko, baina energia gehiago gastatu gabe? 	<ul style="list-style-type: none"> Ingurugiro Etxean "Guztion ardura" ekintza"
L H 5 - 6	<ul style="list-style-type: none"> BERDEGUNEAK: Gelaka herriko eremu desberdinak aztertu ea berdeguneak dauden ala ez eta nolakoak diren. Ondoren guztien artean eremuen konparaketa egin. Ingurugiro Etxetik informazioa pasatuko zaie berdeguneek klima aldaketaren gutxitzean duten paperari buruz, ea zertan eragin dezaken berdegune faltak klima aldaketan. Ze neurri har daitezke berdeguneak gehitzeko? 	<p>Igarako errota Etxearretako baratzak Loiolako zuhaitzak ezagutzen.</p>

D B H 1 - 2	<ul style="list-style-type: none"> • UR EDANGARRIEN EBOLUZIOA URTEGIAN AZKEN URTEETAN. Emango zaizkien datuetan oinarrituta, azken urteetan urtegiak izan duen eboluzioa aztertu eta konparatu. • Azken urteetako herriko ur kontsumoa aztertu eta konparatu: ur kontsumoa gora doan, behera doan, mantentzen den... • Herriko ur kontsumoa urtegiaren eboluzioarekin lotu. • Ba ote dauka zerikusirik klima aldaketak urtegiaren azken urteetako datuekin? Ze gertatuko litzateke ur eskasia etorriko balitz? • Ze neurri har ditzakegu kontsumoa gutxitzeko? 	Igarako errota
D B H 3 - 4	<ul style="list-style-type: none"> • BERDEGUNEAK. Azpeitian dauden berdeguneak aztertu eta baloratu. • La Salbe- Loiola oinezkozteko proiektuak aurkeztu. 	
B A T X I L E R	<ul style="list-style-type: none"> • AZPEITIKO BIDEGORRIEN AZTERKETA Azpeitiko Udalak 2004an aurkeztu zuen Mugikortasun Iraunkorraren Plan Orokorra. Dokumentu horretan bidegorri sarearen proposamena egin zen eta horren zati bat onartu zuen Udalak. • Egindakoa ezagutze aldera, ikasleek onartutako bidegorri sarearen eta gauzatutakoaren arteko konparaketa egingo dute. • Etorkizunari begira, Azpeitiko bidegorri sarea osatzeko falta diren loturen lehentasunak markatuko dituzte mapan. Gainera, bizikletentzako aparkalekuak non kokatuko litzatekeen eta euren plaza kopurua adieraziko dute. • (Material osagarri modura Mugikortasun Iraunkorraren Plan Orokorrean proposatu zen, onartu zen eta gauzatu den bidegorri sareei dagozkien planoak banatuko zaizkie). 	

4.1.2 Sortutako Lan-fitxa Didaktikoak

Aurreko eskaintzan garatzeko ondorengo Lan fitxa Didaktikoak sortu ditugu:

TIPI-TAPA OINEZ ESKOLARA!!! (LH 1-2)

Fitxa baten bidez, LHko 1. eta 2. mailako ikasleek eskolara nola doazen aztertu eta nola joan nahiko luketen konparatu zuten. Bestalde, eskolako sarreraren behaketa egin zuten (arazorik aurkitzen zuten, zerbait hobetu daitekeen...) eta taldeka horma-irudi bat sortu. Bertan, oinez eskolara joateak dituen onurak eta zailtasunak zerrendatu zituzten.

Ufff BEROOO!!! (LH 3-4)

Fitxa baten bidez bero olatuak, bero uhartea eta pobrezia energetikoa aztertu zuten baina hau dena egin aurretik Ingurugiro Etxean "Guztion ardura" ekintza landu zuten.

BERDEGUNEAK (LH 5-6)

Herriko berdeguneak aztertzea izan zen ziklo honetako helburua.

Berdeguneek klima aldaketaren gutxitzean duten paperari buruzko informazioa eman zitzaien, eta beraiek lana izan zen herrian dauden berdeguneak aztertzea. Horretarako, herriko auzo desberdinak beraien artean banatu zituzten. Taldeka egin zuten lana: ea auzo horretan berdegunerik ba al dagoen, daudenak nahikoak diren, nolakoak diren... Ondoren, guztien artean auzoen konparaketa egin zuten eta ondorioak atera zituzten: zein auzo edo eremuetan falta diren berdeguneak, etab.

Amaitzeko, beharra ikusten zuten eremuetan berdeguneak egin ahal izateko hartu beharko lirartekeen neurriak proposatu zituzten idatziz.

UR EDANGARRIEN EBOLUZIOA URTEGIAN AZKEN URTEETAN (DBH 1-2)

Eman zitzaizkien datuetan oinarrituta, azken urteetan urtegiak izan duen eboluzioa aztertu eta konparatu zuten. Horrekin lotuta, azken urteetako prezipitazioak, herriko ur kontsumoa biztanle eta eguneko (ur kontsumoak gora egin duen, behera egin duen, edo mantentzen den). Urtegiaren eboluzioaren datuetan oinarrituta ondorioak atera zituzten. Ba ote du urtegiaren eboluzioak zerikusirik klima aldaketarekin?

Amaitzeko, ur kontsumoa gutxitzeko neurriak proposatu zituzten idatziz.

GAURKO ETA BIHARKO BERDEGUNEAK AZPEITIAN (DBH 3-4)

Azpeitiko berdeguneen egoera ezagutzeko asmoz ikasleek hauek aztertu eta baloratu zituzten Udalak egindako berdeguneen mapan oinarrituta. Ondoren, auzo desberdinen egoera konparatuz, herriko egungo egoera azaldu zuten. Bestalde, etorkizunari begira, eta kontuan izanda Udalak baduela La Salbe-Loiola eremua oinezkatzeko asmoa, ikasleek proiektu honetarako proposamenak aurkeztu zituzten guk emandako hirien plangintzan aplikatu beharreko jasangarritasun irizpideetan oinarrituta.

AZPEITIKO BIDEGORRIAK (Batxiler)

Azpeitiko Udalak 2004an aurkeztu zuen Mugikortasun Iraunkorraren Plan Orokorra ikasleek onartutako bidegorri sarearen eta gauzatutakoaren arteko konparaketa egin zuten. Azpeitiko bidegorri sarea osatzeko falta diren

loturen lehentasunak markatu zituzten mapan. Gainera, bizikletentzako aparkalekuak non kokatuko lituzketen eta euren plaza kopurua adierazi zuten. Material osagarri modura Mugikortasun Iraunkorraren Plan Orokorrean proposatu zen, onartu zen eta gauzatu den bidegorri sareei dagozkien planoak banatu zitzaizkien.

4.1.3.- Ekintza osagarriak

➤ **Loiolako zuhaitzak ezaguntzen**

Ekoetxea sustatzen joateko sortu den jarduera hau Eskolako Agenda 21eko ekintza osagarri bezala eskaini zaie LH5 eta LH6 mailako ikasleei. Bere helburua da Loiolako parkeko zuhaitzak ezagutu, eta aldi berean herri barruan berdeguneak egotearen garrantziaz jabetzea. Ekintza Iraurgi ikastetxeko zein Karmelo Etxegarai ikastolako LH5 mailako ikasleek burutu dute eta oso ondo baloratua izan da ikasle zein irakasleen aldetik.

➤ **Baserrietara bisitak**

Baserrietara bisitak ekimena Urkome eta Azpeitiko Udalaren elkarlanari esker gauzatzen da. Urtero legez, epealdi honetan, LHko 3. mailako ikasleek Sakona-Komuntzo etxalde ekologikoa bisitatu zuten. LHko 6. mailakoek, berriz, Beizamako Leunda eta Leundaberri baserriak. Ekintza honen bidez, nekazal mundua gertutik ikusteko aukera izan zuten.

➤ **Baratzezaintza ikastaroa:**

DBH 1. mailako ikasleek burutu zuten ikastaroa. Ikasberri Azpeitiko ikastolakoek bere baratzean bertan egin zuten. Iraurgi ikastetxekoek eta Urola ikastolakoek, berriz, Sakona-Komuntzo etxalde ekologikoan.

➤ **Ideia Onenaren Saria**

Aurtengo lehiaketan ere bi kategoria desberdindu ziren: Alde batetik, LH eta bestetik, DBH- Batxilergoa. **LH-n jorratu beharreko gaia “*Eskolatik zer egin daiteke mugikortasun iraunkorra bultzatzeko?*”** izan zen. **10 proiektu** aurkeztu ziren eta irabazlea Azpeitiko ikastola Karmelo Etxegarateko 6.C gela izan zen *Puntuekin ikastolara* proposamenarekin. Irabazleek, opari gisa, Urdaibaira txangoa egin zuten ekainaren 22an.

DBH eta Batxilergoan, berriz, ***Loiolako Bide Zaharra La Salbetik Loiolaraino oinezko proiektuak*** diseinatu behar izan zituzten. **5 proiektu** aurkeztu ziren. Irabazleak Irauregi ikastetxeko DBH-4. mailako ikasleak izan ziren, eta eskuratutako saria Arana- Sobronera irteera izan zen.

Esan beharra dago aurtengo edizioan ikasleen parte hartzea dezente igo dela, batik bat DBH-Batxilergoa kategorian, eta datu hau oso modu positiboan baloratu dugula.

➤ **Ibaiaren garbiketa**

Ekimena ekainaren 15ean egitea aurreikusita bazegoen ere, Urola ibaiko uren egoera eta eguraldi txarra iragarrita zegoela kontuan izanda, ibai garbiketa irailaren 14ra atzeratzea erabaki zen. Egun horretan garbiketarekin hasi aurretik, eta ikasleen konzientziazioa eta ibaiak dituen altxorrez jabetze aldera, Javier Arenas azpeitiarrak Urola ibaiari buruz egin duen bideoa proiektatuko da Soreasu Antzokian.

➤ **Material birziklatuekin egindako eskulanen erakusketa**

Ekainaren 4tik 8ra, material birziklatuekin egindako eskulanen erakusketa zabalik egon zen Azpeitiko Udalaren erakusketa aretoan. Ikasturtean zehar EA21 prozesuaren baitan herriko ikastetxeetan material desberdinekin eskulanak egin zituzten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek eta horiek ziren herritarrei aurkeztu zizkietenak. Erakusketak 309 bisitari izan zituen.

4.1.4.- Komunikazio materiala

➤ **Buletina**

Publikazio honetan ikastetxeek bateratuta (Iraurgi ikastetxea, Karmelo Etxegarai ikastola, Urola ikastola, eta Azpeitiko ikastola Ikasberrik) eta zikloka, urtean zehar EA21 esparruan egindako lanen berri eman zuten, dagozkien irudiez lagunduta. Buletinean, bestalde, ikasleek hartutako konpromisoak eta Udalerako proposamenak azaltzen dira. Horrez gain, buletinean, Azpeitiko Udaletik bideratutako beste ekimenen berri ematen da, hala nola, *Baratzezaintza ikastaroak*, *Baserrietara bisitak*, *Trenaren*

museora bisitak, Zuhaitz eguna, Material Birziklatuekin egindako eskulanean erakusketa eta Ibai-garbiketara.

Buletinaren 5.000 ale banatu ziren Azpeitiko etxe guztietara Mundu Mailako Ingurumen Egunaren inguruan.

4.1.5.- Parte hartzea

➤ **Eskolarteko Foroa**

Azpeitiko EA21eko egitasmoa garatuz, eskolan bertan zein eskolatik kanpo egindako jarduera eta irteeren ondorioz, "Klima aldaketa eta osasuna" gaiari lotuta, ikasleek premia edo behar batzuk nabaritu zituzten herri mailan. Behar horien adierazpena proposamenetan gauzatu zuten, ikastetxeka eta mailaka.

Proposamen hauek adostu eta bateratzeko asmoz, **apirilaren 26an**, Ekoetxean Eskolarteko Foroa egin zen. Egun horretan Eskolako Agenda 21 egitasmoan parte hartu duten Azpeitiko ikastetxeetako (Iraurgi ikastetxea, Azpeitiko ikastola Karmelo Etxegarai, Ikasberri Azpeitiko ikastola eta Urola ikastola) 2.572 ikasleen ordezkariak hiru taldetan banatu ziren. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloak alde batetik, Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa, bestetik, eta azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa eta Batxilergoa. Lan-taldeak Ekoetxeako hezitzaileek dinamizatu zituzten. Bukatzeko, denen artean ziklo guztietako proposamenak bateratu zituzten.

➤ **Udal Foroa**

Maiatzaren 17an, Azpeitiko Udaletxean Udal Foroa egin zen. Ekitaldiak hiru zati izan zituen. Lehenengo zatian, ikastetxe bakoitzeko ordezkariak gai horiek nola landu dituzten azaldu eta azken hilabeteotan ateratako ondorioak eta euren proposamenak azaldu zizkieten agintariei. Bigarren zatian, DBH-4 mailako ikasleek La Salbe auzunetik Loiolara doan **bidea oinezkotzeko diseinatu dituzten proiektuak aurkeztu zituzten Udal aretoan**. Gainera, ikasleek beraien ekarpenak egin ahal izan dituzte Udalak osatuta zuen proiektuaren inguruan, eta erakundea eskaera horietako batzuk gauzatzeko hasi da dagoeneko. **Azkenik, Ideia**

Onenaren Sariaren_berri eman eta proiektu irabazleak ezagutzera eman ziren

4.1.6- Eskolako Agenda 21eko Koordinazio Bilerak:

Ikasturte honetan egindako koordinazio bilerak ondorengo koadroan azaltzen dira:

2017ko irailak 21: Manakuntza saioa (ikastetxeetako koordinatzaileak+Besakoetxeko hezitzaileak)
2017ko urriak 26: bilera+eskaintzaren aurkezpena koordinatzaileei
2018ko urtarrilak 18
2018ko martxoak 1
2018ko maiatzak 24
2018 ekainak 14

Bestalde, Ekoetxea Azpeitia partaide izan zen “ *EA21 programaren berrikusketa prozesua*” deituriko egitasmoaren baitan Bilboko Ingurugelan 2017ko abenduaren 15ean egin zen bileran.

4.1.7.- Ikasleen ekarpenak herriko proiektuetan

2017-18 ikasturtean ikasleek Eskolako Agenda 21aren esparruan egindako herri diagnostikotik ateratako ekarpenak islatu dira Azpeitiko hainbat **hirigintza proiektuetan:**

➤ **La Salbe- Loiola oinezkoetako proiektua**

Azken urteotan, Azpeitiko Udalak natur baliabideak eta Urola ibaiaren ingurua balioan jartzeko neurri hartu ditu, eta herritarren atsedenerako leku bilakatzea du helburu. Neurri horien artean dago Sanjuandegitik Loiolara arteko bidearen berdetzea ere. Ikasleek osatutako proiektuen bidez beraien ekarpenak egin ahal izan dituzte Udalak osatuta zuen proiektuaren inguruan, eta erakundea eskaera horietako batzuk gauzatu ditu, esate baterako, Xaguxatar parkea integratu egin da bideari osotasuna emateko.

Horretarako hesia kendu zaio, eta ibaiaren ondoko hesia berritzeko berrerabili da. Bidearen ertzetan, berriz, parkeko material berdinarekin

osatutako elementuak jarri dira. Sanjuandegitik parkera arteko zatian kolokazio eta altuera desberdineko landareei esker ibaiaren ikuspegi desberdinak sortu dira, eta miradore moduko batzuk egin.

Etxoetxeatik Loiolara arteko zatian zig-zag moduan mugituz, ibaiaren ibilbidearen eta uraren mugimenduaren berdina eginez ibiltzeko egokituko da, eserleku eta mahai batzuk ere ipini dituzte.

➤ **Bizikleten aparkalekuak**

Batxilergokoen kasuan, Azpeitiko Bidegorri Sarerako proposatutakoaren mapa eta gauzatutakoaren mapa konparatu ondoren, falta ziren loturen lehentasunak markatu eta aparkaleku berrien kokapenak proposatu behar izan zituzten. Proposamen hauetan oinarrituta, Azpeitiko Udalak 10 gune berri egokitu ditu herrian bizikletak uzteko, horietako bat Ekoetxea bertan.

4.2.- Eskolako Agenda 21 2018-2019

2018-2019 ikasturtean *Ekoizpen eta Kontsumo Jasangarria* gaia jorratuko dute ikastetxeek. Azpeitia eta Azkoitian eskaintza bateratua bideratzeko asmoz, uztailaren 5ean Ekoetxea Azpeitian bildu ginen Ingurugelako Edurne Huesa, Izaskun Ceciaga, Azpeitiko Udaleko ingurumen teknikaria, Amaia Argarate, Azkoitiko Udaleko ingurumen teknikaria eta Ekoetxeako hiru hezitzaileok.

Hurrengo ikasturterako prestatutako eskaintza honako hau da:

4.2.1.- Eskaintza

EKOIZPEN ETA KONTSUMO JASANGARRIA

	OINARRIZKOAK	OSAGARRIAK
L H 1 - 2	<ul style="list-style-type: none"> Lanbideak aztertu garai desberdinetan (birraitonak/gurasoak/beraiek) 	<ul style="list-style-type: none"> Ekoetxean “ Lanbideak” ekintza. Lanbide desberdinetako gurasoak ikastetxean azaldu bere lanbideari buruz informazioa (Ikastetxe berak kudeatu beharko luke)

L H 3 - 4	<ul style="list-style-type: none"> Fitxa baten bidez, baserriarrei galdera batzuk egingo dizkiete azokaren etorkizunari buruz. 	<ul style="list-style-type: none"> Baserrietara bisitak
L H 5 - 6	<ul style="list-style-type: none"> Familien erosketa ohiturak (elikagaiak, arropak,..) eta interneteko erosketak inkesta bidez aztertu. 	<ul style="list-style-type: none"> Baserrietara bisitak
D B H 1 - 2	<ul style="list-style-type: none"> Inkesta bidez aztertu: <ul style="list-style-type: none"> ➤ merkatarien irizpideak produktuak saltzerakoan. Aztertu dezakete ere zenbat produktu dituzten garaian garaikoak (irizpideak eman zer den garaian garaikoa). ➤ erosleen irizpideak produktuak erosterakoan (bertako dendetan erosten al duten, zer eskatzen dieten saltzaileei, poltsa berrerabilgarriak erabiltzen dituzten ala ez). 	
D B H 3 - 4	<p>1. eta 2. sektore ekonomikoen azterketa galdera hauen inguruan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nola ekoizten duten? - Lehengaiak nondik eta nola ekartzen dituzten? -Gizarte eta ingurumenarekiko erantzukizuna nola gauzatzen duten? 	
B A T X I L E R	<ul style="list-style-type: none"> Bakoitzaren armairuaren azterketa (arropa+oinetakoak) (non eginda daude, non erosita, etiketak aztertu) Ondorioak 	

5- KOMUNIKAZIOA

5.1.- Bisitak Ekoetxea Azpeitiako web orrira

Ondorengo koadroan ikasturtean web orrira izandako bisitak azaltzen ditugu hilabeteka

HILA	BISITA KOPURUA 2017-2018	BISITA KOPURUA 2016-2017
IRAILA	215	194
URRIA	264	159
AZAROA	315	245
ABENDUA	194	174
URTARRILA	229	230
OTSAILA	233	415
MARTXOA	282	535
APIRILA	291	184
MAIATZA	387	236
EKAINA	401	227
UZTAILA	307	166
ABUZTUA	268	112
GUZTIRA	3386	2877

5.2.- Komunikabideekin harremanak

Ekoetxea Azpeitian antolatutako tailer zein ekintza guztien komunikazioa Azpeitiko Udaleko Komunikazio Arduradunaren bitartez bideratu da.

5.2.1- Sare Sozialetan presentzia

Ikasturtean zehar antolatutako ekintzei buruzko informazioa WhatsApp bidez ere zabaldu da. Bestalde, beste sare sozialak (facebook, twiter, instagram) erabiltzen ez gara hasi. Oraingoz Komunikazio Planaren garapena nori dagokion zehaztu gabe dago.

5.3.- Publiko desberdinei zuzendutako mailing-a

5.3.1.- Ikastetxeak

Asteburuetan antolatutako jardueren informazioa Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako ikastetxeetako zuzendari zein Eskolako Agenda 21eko koordinatzaileei helarazi diegu. Gainera, Udarako programazioaren kasuan,

Urola Erdia eta Urola Kostako ikastetxeei ere bidali diegu.

5.3.2.- Turismo Bulegoak

Aste Santuko asterako, Pazko asterako eta Udara garairako diseinatutako programak Urola Kosta eta Urola Erdiko aisialdi talde eta ludotekekin partekatu zen.

6- HARREMANAK ETA SARETZEA

6.1.- Eskualdeko eta Azpeitiko eragile eta taldeekin harremanak

Aurrez adierazi dugun moduan Ekoetxeako eskaintza osatze aldera herriko zein eskualdeko eragile ezberdinekin elkarlanean bideratu ditugu hainbat jarduera:

➤ **Azpeitiko Udala**

Gazteria Saila

Ingurumen Nazioarteko Egunaren ospakizuna Azpeitiko ludotekarekin burutu genuen, beraiek horrela eskatuta. Egun horretan *Xaguxatar parkeko programa* landu genuen 5 eta 7 urte bitarteko 45 umerekin. Bestalde, Turismo Sailarekin ere izan ditugu harremanak, besteak beste, Aste Santuko eskaintza diseinatzerakoan eta Xaguxatar Bidearen proiektuaren garapenean.

Turismo Saila

Xaguxatar Bidea:

Azpeitiko Udalak eskatuta Xaguxatar Bideari ekin diogu. Ibilbide zirkular honek (Ekoetxean du bere abiapuntu eta bere helmuga) 6 geldialditan oinarrituta, bertakoei zein kanpokoei Azpeitiko baliabide naturalak eta gizakiak haiengan duen eragina ezagutzera emateko balioko du, eta, era berean, baliabide berri bat sortuko, bai Ekoetxea Azpeitiaren hezkuntza eskaintzan zein herriko aisialdi eskaintzan ere.

Proiektu honen garapenaren jarraipena egiteko hainbat bilera egin ditugu Ekoetxeako hezitzaileok Arazi enpresa, Udaletxeko zein Turismo alorreko ordezkariekin.

Igara Errotako bisitaldiak Aste Santuan: (martxoak 29tik-apirilaren 2ra):

Ekoetxea Azpeitiak Aste Santuko Programazioaren barne Igarako Errota ikusgai egon zen apirilaren 1ean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etan eta 17:00etan. Apirilaren 2an, berriz, 11:00etan eta 12:00etan ipini zen martxan. Errotak 324 bisitari izan zituen.

Turismo familiar proiektua: Loiolako Turismo Bulegoko arduraduna gurekin

ipini zen kontaktuan *Turismo Familiar* proiektua gurekin partekatzeko. Izan ere, Eusko Jauritzaritzak Basquetourren (Turismoaren Euskal Agentzia) bitartez familientzako turismoari buruzko liburuxka editatuko du. Ekoetxea Azpeitiari ere gonbidapena luzatu zaio bertan azaltzeko. Horretarako, Basquetourrek helarazitako galdetegia bete genuen non ekipamenduaren barruko zein kanpoko instalazioen ezaugarriak, ekipamenduaren edukiak, etab. zehazten diren. Maiatzak 10ean, Ekoetxean bildu ginen Loiolako Turismo bulegoko teknikariarekin inkesta berreste aldera. Basquetour erakundea enpresa bakoitzaren diagnosis egiten ari da eta Ekoetxea Azpeitiari dagozkion emaitzak jasotzear gaude.

➤ **Iraurgi Berritzen- Urkome- Azpeitiko Dendarien Elkarte**

Iraurgi Berritzen-etik (Urola Erdiko Garapen eta Berrikuntza Agentzia) luzatu zitzaion merkatarien izenean Azpeitiko Udalari kontsumo ohituren inguruko sentirkotze lana egitearen proposamena. Udalari berari egokia iruditu zitzaion proposamen hau ikastetxeekin ere partekatzea. Kontuan izanda 2018-2019 ikasturtean, EA21aren esparruan, *Ekoizpen eta kontsumo iraunkorra* gaia jorratuko dela, eta bi proiektuak uztartzearen aukerak aztertze aldera, ekainaren 29an Ekoetxean bildu ginen Iraurgi Berritzenetik Alazne Larrañaga, Urkometik, Yurre Peñagarikano, Azpeitiko Udaletik, Izaskun Ceciaga, Bertan, Azpeitiko Dendarien Elkartetik, Xabier Aldalur eta Ekoetxeatik, bertako 3 hezitzaileok. Ekaineko bilerari jarraipena emanez, uztailearen 18an bildu ginen aipatutako eragileak elkarlana zehazten joateko.

6.2.- Ekoetxea Sarean parte-hartzea

Ekoetxeen Sareak ikasturtean zehar antolatutako hainbat bileretako partaide izan da Ekoetxea Azpeitia. Alde batetik, azaroaren 24an ekipamenduan bertan egindakoa, eta bestetik, abenduaren 19an eta apirilaren 13an, Ihoberen Bilboko egoitzan egindakoetan. Horrez gain, Ekoetxeen Sareak sortutako ekintzen agendako partaide gara.

Bestalde, Ekoetxeen Sareko señaletika zein Komunikazio Grafikoko Elementuen Diseinu Gida ere partekatzen ditugu beste Ekoetxeekin.

7- KUDEAKETA ETA ANTOLAKUNTZA

7.1.- Bilerak Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzako arduradunekin, udal-teknikaria den Izaskun Ceciagarekin , eta Aitor Bereziartua, udal zinegotziarekin bildu ginen Ingurugiro Etxea museoan, epealdiari dagozkion memoriak aztertu eta bertako kudeaketaren irizpideak finkatzeko asmoz. Ikasturte honetan ondorengo bilerak egin ziren:



2017ko urriak 19
2108ko urtarrilak 19
2018ko maiatzak 9
2018ko uztailak 19

7.2.- Bilerak Azpeitiko Udal ordezkariekin

Urtean zehar Azpeitiko Udal ordezkariekin bildu gara Ekoetxeako kudeaketaren jarraipena egiteko.


8- BISITARIAK

IKASLEAK	IRAKASLEAK	PUBLIKOA	GUZTIRA
3.716	375	1.987	6.078




8.1- Aurrez hitzartutako bisitak:


8.1.1- Hilabeteka



8.1.2- Probintziaka




8.1.3- Zikloka



Gidatutako bisiten artean, museoa bisitatu duten ikasleen gehiengoa **LHko 2. ziklokoak** izan dira.

8.1.4- Programaka




Grafikoak adierazten duenez, ikasturte honetan gehien landu diren programak Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiari dagozkion bigarren eta bosgarren helburuei dagozkienak izan dira, **Baliabide naturalak eta hondakinak** (%18k landu dute) eta **Klima aldaketa** (%55ek landu dute).

Ondorengo taulan ikus daiteke Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiari dagozkion helburuen eta museoko programen arteko erlazioa:

HELBURUAK	PROGRAMAK	MUSEOAN LANDUTAKO PROGRAMAK
1- Airea, ura eta lurzorua	Bizi garen Lurra Atmosfera Ura Nuarbeko urtegia Ibai-Ederko edateko uren araztegia Lasaoko araztegia	Bizi garen Lurra %2k Ura %6k
	Hondakinak eta kontsumoa	Hondakinak eta kontsumoa %14K



2- Baliabide naturalak eta hondakinak	Lapatx zabortegia Kontsumo Iraunkorraren gela Hezurren Egia	
3- Natura eta biodibertsitatea	Animaliak eta landareak Baserrietara bisitak Baratzezaintza tailerrak Xaguxatar parkea	Animaliak eta landareak %2k Xaguxatar parkea %5ek
4- Lurraldearen oreka eta mugikortasuna	Zarata	Zarata %2k
5- Klima aldaketa	Energia Klima aldaketa Garapen Iraunkorra Igarako errota	Energia %9k Klima aldaketa %29k Garapen Iraunkorra %4k Igarako errota %25ek
	Bisita orokorra	Bisita orokorra %1eK

8.1.5- Hizkuntza Ereduaren Arabera




Grafikoak adierazten duen moduan, epealdi honetan bisitatu gaituztenen gehiengoa D ereduakoa izan da.

8.1.6- Adina eta Sexuaren Arabera



8.2- Nork bere konturako ikustaldiak


8.2.1- Probintziak




Nork bere kontura ekipamendua bisitatu duten Euskal Autonomia Erkidegoko bisitari gehienak Gipuzkoatik etorri dira, %85, hain zuzen. EAetik kanpo etorri direnen artean, aipatu besteak beste, Lituania, Erresuma Batua, Argentina, Txile, Kroazia, Mexiko. Polonia, Maroko, Italia, Filipinak, Bolivia...tik etorri direnak.

8.2.2- Asteko Egunaren Arabera


PUBLIKOA				
Ekoetxean	Tailerretan	Zuhaitz egunean	Igarako Ate irekietan	Guztira
1.224	361	78	324	1.987



Ondorengo grafikoan, Ekoetxean izan ditugun bisitariak eta bertatik antolatu ditugun ekintzetan parte hartu dutenen kopuruak banatuta adierazi ditugu.



8.2.3- Adina eta Sexuaren Araberak



Azpeitian, 2018ko irailaren 21ean